

Artziniega, 2021eko urtarrilaren 18a

EAJ-PNVk hamar bat zuzenketa egin ditu Artziniegako 2021erako aurrekontu orokorren proiektua hobetzeko

Alderdi jeltzaleak beste urte batez egiaztatu du EH-Bilduren Gobernu Taldeak egindako kontu berrietan proiektu propioen jarraitutasuna eta falta direla, eta proposamen horien bidez, udalerriaren benetako beharrei erantzun nahi die politika eta inbertsio berriekin

Eusko Alderdi Jeltzaleak Artziniegako aurrekontu orokorren proiektuari dagozkion zuzenketak erregistratu berri ditu. Proiektu hori EH-Bilduren Gobernu Taldeak egin du, 2021eko ekitaldiari begira. Hamar bat ekarpen dira, herritarren benetako beharrei erantzuteko herriari beharrezko bizitza eta proiektuak ematea helburu dutenak.

Horrela, gaur egungo osasun-krisiaren eta haren ondorio ekonomikoen ondorioz, ezin bestela izan, EAJ-PNV Artziniegaren lehenengo proposamenak **ostalaritza eta tokiko merkataritza indartzeko udal-plana diseinatu eta gauzatu** nahi du, 2021erako COVID-19ren ondorioz egungo egoerak sortutako ondorioak arintzeko ekintza zehatzekin. **Encina Castresana** Artziniegako bozeramaile jeltzaleak adierazi duenez, "EAJk uste du funtsezkoa dela udal-aurrekontua gure ostalaritza eta merkataritzari laguntzeko tresna izatea; hori dela eta, *UDALBILTZA kultura-proiektuaren lankidetzaren* 6.000 euroko aurrekontu-partida ezabatzea planteatzen dugu, eta horren ordez diru-kopuru bera duen diru-partida bat prestatzea eta, beharrezkoa izanez gero, Udalaren diruzaintzako gerakinaren kargura handitzea".

Bestalde, EAJ-PNVk **berariazko aurrekontu-partida bat** gaitzeko eskatu du, COVID-19 egoera dela-eta udalerriko eremuak eta espazioak garbitu eta desinfektatzeko.

"EAJk askotan azaldu du oso garrantzitsua dela garbiketak eta desinfektatzeak egitea, bai eremu eta espazio publikoetan, bai gure udalerriko igarobide handienetan; izan ere, EH-Bilduko alkatetzak ez ditu egin, ez dituelako lehentasunezkoztat jo", deitoratu du Castresanak.

Halaber, Joseba Vivanco EH-Bilduko alkatearen gobernuari eskatzen zaio **basoetara eta baso-berritzeetarako proiektuetara bideratutako aurrekontu-partida** handitzeko; izan ere, EAJ-PNVk "uste dugu garrantzitsua dela mendiak antolatzeak eta bertako espezieak basoberritzeko udal-plana garatzea, baso-kudeaketa jasangarriarekin batera".

Bestalde, **Arteko aldapan egiteke dagoen espaloi zatiaren obra gauzatzeko aurrekontu partida bat** prestatzea eskatu du jeltzaleen taldeak. "Eh Bilduren udal gobernuari eskatzen diogu dagozkion izapideak eta lana has ditzala, eta aurrekontu partida bat presta dezala Arteko aldapan egiteke dagoen espaloi zatia amaitu ahal izateko".

Auzoak kudeaketaren erdigunean

Artziniegako auzoak eta auzotarrak udal-kudeaketaren erdigunea dira eta izan behar dute. Hori dela eta, EAJ-PNVk **auzoetara bideratutako partida handitzea** proposatzen du, "Ezinbestekoa baita auzoetako bizilagunekin bilerak berriro egitea, haien kezkak eta beharrak ezagutzeko, udal-aurrekontuan beren proposamenak sartu ahal izateko".

2020ko ekitaldian bezala, 2021eko kontuetan ere partida izendunak sartu dira elkarte eta taldeen programa eta jardueretarako, eta oposiziotik EH-Bildu aurpegiaritzen zuen hori, "**Diru-laguntzen deialdi publikoaren** bidez izapidetu behar zirelako". Horregatik, "EAJ-PNVk eskatzen du kultura- eta kirol-jarduerak eta -programak egiteko partida handitzeko, jarduera guztiak deialdi horren bidez egin daitezen".

Castresanak adierazi duenez, "EAJ-PNVk ezinbestekotzat jotzen du energia-eraginkortasuneko eta energia berriztagarrietako udal-plan bat egitea, udal-eraikinetan panelak edo eguzki-plakak instalatzea bezalako ekintza zehatzekin; izan ere, horrek energia-kontsumoa eta horri lotutako kostu ekonomikoak murrizten lagunduko luke, eta gainera, tokian tokian klima-aldaketa arintzen lagunduko luke.

EAJ-PNVk proposatutako beste zuzenketa bat kiroldegiko aparkalekua hobetzeko partida bat gaitzea da. "Gure udal-taldetik, udal-gobernuari eskatzen diogu aurrekontu-partida bat presta dezala moztutako makalen hondakin guztiak tratatzeko eta kiroldegiko aparkalekuan zuhaitz egoki bat birlandatzeko, aparkaleku-plazak handitu eta eremua hobetu ahal izateko".

Herritarren parte-hartzea EAJ-PNVk defendatzen duen kudeaketa-ereduaren ardatzetako bat da; horregatik, lanketa-metodo parte-hartzaileago bat sortzea eskatzen da, alderdi politikoak barne hartuko dituen elkarte- eta herritar-mugimenduaren presentzia zuzenarekin eta denbora nahikoarekin, 2021eko udal-aurrekontua osatzen duten partidak zehatz-mehatz landu ahal izateko. "EH-Bilduren egungo gobernu taldeak hainbat urtez kritikatu izan du EAJ-PNVren eredu parte-hartzailea, eta ikusten dugu Vivancoren taldeak ekitaldi honetarako bere kontuak aurkezten dituela 2020an bezala, hau da, EAJ-PNVren berbera jarraitzen duela", salatu du bozeramaile jeltzaleak, eta gaineratu du "bizi dugun pandemia egoera ezin dela aitzakia izan, eta, beraz, berriro eskatzen dugu eredu parte-hartzaileagoak proposatzeko helburuarekin 2021erako aurrekontua gaitu, eta partida horretan, gutxienez, udal-aurrekontuaren **%1 bideratuko da auzotarrek proposatutako proiektu eta jardueretara**".

Udalerrirako inbertsioak

EAJ-PNVren proposamenen artean jasotzen da udal-aurrekontuan sartzeko inbertsioak eta proiektuak, hala nola El Palacio aurreko aldean, non irletak edo La Encina jatetxearen aurreko espaloia eta aparkalekua egokitu behar diren. Halaber, kontu orokorretan partida bat gaitzea proposatzen da, Geltoki plazan haurrentzako jolasgune estali bat sortzeko.

Bestalde, udalerriko kale guztiak identifikatzeko plakak instalatzeko partida bat gaitzea eskatzen da. Kirol arloan, Skatepark eraikitzea eta, gutxienez, tenis pistetako bat padel-pista bihurtzea. Halaber, marmoldegiaren aurreko aldea egokitzea eta frontoiaren ondoko aparkalekua berrantolatzea proposatzen da. Azkenik, "azterketa eta memoria ekonomiko bat egitea ludoteka edo haur txoko bat prestatzeko, 12 urtera arteko haurrentzat eta aisialdirako eskaintza osatzera etorriko dena", amaitu du Encina Castresanak.